

Aureliak zotina badu



Matematiken aldia da.

Arbelean, Txomin batuketa egiten ari da :

– Sei eta sei, hamabi : bi idazten dut eta bat atxikitzen...

– Hip! – egiten du Aureliak.

5 – Hiru eta bost, zortzi... – dio Txominek.

– Hip! Hip! – Aurelia gorri-gorria jartzen da.

Haur guziak irriz hasten dira.

– Zer gertatzen da? – galdetzen du andereñoak.

– Hip! Hip! Zotina eskapatzen zait – dio Aureliak.

10 Haur guziak irri-karkailaka ari dira.

– Beldurra sarrarazi behar diogu eta zotina iraganen zaio – diote lagunek.

– Kasu! Otso bat baduzu bizkarrean! – oihu egin du Koldok.

– Ez da egia! Hip!

– Baina neska hau ez da batere izitzen ! – dio Magalik. Sudurra 15
tapatu behar duzu eta arnasarik hartu gabe egon.

– Hip ! Hip ! Zure ideia ez da oso ona ! Ene zotina ez da... hip ! gel-
ditu...

Bat-batean, Aureliak garrasi bat egin du. Sudurraren aitzinean,
hari luze baten puntan, armiarma beltza zilintzan ikusi du. 20

– Lasai, haurrak ! Deus ez da ! – andereñoak.

Aureliaren garrasia entzun eta, armiarmak ihes egin zuen.

– Ene zotina ere desagertu da !

– Bozten naiz, Aurelia ! Orain, zoazte jostatzerara eta gero mate-
matiketetan segituko dugu. 25

Francas erakundearen *Jeunes années* aldizkaritik egokitua.

① IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Zer ari ziren haurrak eskolan ?
- Zer gertatzen zaio Aureliari ?
- Zer egin behar da zotina delarik ?
- Azkenean nola desagertzen da Aureliaren zotina ?
- Zer giro da ikasgela horretan ?
- Testu honi beste izenburu bat emaituz.

② HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

► Erranaldiak idatz itzazu hitz hauek hutsunetan ezarriz.

zurrungan

urtzainka (atsixa)

okerra

eztulka

..... ari naiz marranta (marfundi) naizelarik.

..... ari naiz hoztu naizelako.

..... ari da aita gauaz.

..... egiten dut ase naizelarik.